

## Hala Bedi irratia 25 urte



Hala Bediko lan taldea. Ezkerretik lehena, Iñako Ziarsolo.

# Lizentziaren ezpata buru gainean

Duela mende laurden euskara indartzeko, bidegabekeriak salatzeke eta aldarrikapenen bozgorailu izateko proiektua erein zuten Gasteizen. Orain, ikus-entzunezko lege egitasmo berriak Hala Bedi irratia biziraupena kolokan jar dezake.

ANDER ALTUNA

Argazkiak: Alex Larretxi

**1980KO HAMARKADA HASIERAKO** Gasteiz hura apaiz eta militarren hiri grisa zelako topikoa azkeneko Iñako Ziarsolo Hala Bediko kideari entzun diogu. Haatik, giro ilun horrek sortu zuen sutegiak beratu zuen belaunaldi berri baten distira, Txema Ramirez de la Piscina Kazetaritzan doktore eta

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearen aburuz: “Egia da Gasteiz beti izan dela hiri kontserbadorea; baina, aldi berean, hainbat mikroklima desberdin sortzeko eta garatzeko gai den eremu urbano interesgarria da. Hori orain gertatzen da, baita duela hogeita bost urte ere. Bestela, Hala Bedi sortzea ezi-

nezkoa zatekeen. 1983ko Hala Bedi hura probokazio hutsa zen; hiriko beatoei zuzendutako satira atea, agian ez oso pedagogikoa. Bere funtzioa bete zuen 1980ko hamarkada zoro eta gogor hartan”. Hala uler daiteke irratia libre horrek hastapenetan aurrera egiteko izan zuen bidegurutzeara: debekuak, itxierak, zigor ekonomikoak, Polizia Nazionalearen bisitak... Kontuak kontu, ekimena zapuzteko ahalegin oro kamutsa izan zen.

1983ko abuztuaren 5ean egin zuten lehen emisioa. Arabako hiriburuan egiten ziren prozesio ateotako kideek, gerora gaztetxearen sorreran izan ziren horiek, erein zuten Hala Bedi izenez sortu zen uzta. Orduan, ia dena gaztelaniaz egiten zuten. Urteak aurrera joan ahala, euskararen presentzia handituz joan da, baita programen kalitatea ere.

Garoiako zentral nuklearraren inguruko ika-mika puntu gorenean zegoenean jendarteratu zen irratia. “Gizarte mugimenduei ahotsa ematea zen irratia oinarria. 25 urte igaro arren berdin jarraitzen dugu. Orain AHTaren eztabaida pil-pilean dago eta egunero egiten dugu horren jarraipena. Eragileen ideiak plazaratzeko bitartekoa izan da irratia”, diosku Ziarsolok.

Koskortu ahala Euskal Rock Erradikala delakoaren eragina nabaria zen. Dena den, 1990eko hamarkada hasieran irratia eraldatu egin zen oinarrietatik abiatuta. “Ez zuen zentzurik punk irratia egitea entzule punkyari besterik ez izateko. Programak egiterakoan gehiengoarengana iristen ahalegindu ginen, irratia aberastuz eta garai ezberdinetara egokituz. Neurri batean asmatu dugulakoan nago”.

### Irratiaren erraiak

100 lagun inguru aritzen dira irratia dituen 30 irratsaio ezberdinetan, euskaraz eta gaz-

“1983ko Hala Bedi probokazio  
hutsa zen; hiriko beatoei  
zuzendutako satira atea. Bere  
funtzioa bete zuen 1980ko  
hamarkada zoro eta gogor hartan”

TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA

telaniaz. Alde teknikoaz arduratzen den liberratu bat izan ezik gainontzekoak afizioz aritzen dira, ofizioz baino. Ziarsolok dioenez, “ordaintzen ez den eskulana da hoberena. Proiektu batean, komunikatzeko modu batean sinesten dugu eta hori da komunean dugun ondasun bakarra”.

Halabelarriak izeneko bazkideak dira Hala Bedi irratia bizkarrezur, diru-sarreraren %70 inguru. Horretaz gain, ekonomiko-ki iraun ahal izateko diru sarrera alternatibok bilatu dituzte: kontzertuak, txosnak, zozketak, taberna bat ere badute irratia izen berarekin. Sekula ez dute iragarki komertzialik sartu. Hori egin izan balute libre izaera galdua lukete honezkero Ziarsoloren ustean. Uneotan Halabelarri gehiago lortzeko kanpainan murgilduta daude.

Araba da irratia muga, nahiz *Suelta la olla* goizetako magazina, audientziarik gehien duena, Bilbon ere entzuten den Tas-Tas irratia librearen bidez.

Nolakoa da egungo Hala Bedi? Honatx Ramirez de la Piscina irakaslearen erantzuna: “Gaur egun, orduan bezalaxe, hiria osatzen duten hainbat mikroklima horietako bat da, helduagoa, modernoagoa eta baliabide askoz gehiagorekin”.

### Lizentziarik gabe ezin

Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezko dekretu berri baten zirriborroa osatu du. Bi hitzetan esateko, lizentziarik gabe ezin uhinetan segi. Hainbat irratia librek jakitera eman duenez, neurri horren xedea FM diala garbitu eta irratia irenstea baino ez da, eta dekretua ezbaian jartzen dute. Hala Bedi jaso du zirriborro horren ale bat eta Ziarsolok esan digunez, lehiaketa bat egingo da lizentzia eskuratu ahal izateko. “Irrati libreek ere aurkezteko aukera dugu, baina nola lehiatu gaitzke irratia komertzialekin? Toki beretik abiatuta ere desabantailan gaude. Instituzioek babestu egin beharko gintuzkete eta ez ezabatzen ahalegindu”. Ramirez de la Piscina ere argi du gobernuek irratia asoziatibo edota komunitarioei aukera eman behar dietela euren esparru propioa izateko. “Hortik jo beharko luke Jaurlaritzak berak ere. Legea talde handien neurriaren egiten baldin bada... Hori adierazpen askatasunaren aurka doa”.

Irratiaren nortasuna eraiki zuten ideia berberak mantenduz emititzen jarraitzea, hori da Hala Bediren berehalako erronka. Aurreko 25 urteetan duintasun osoz bizi-raun dute eta biharko egunean beste horrenbeste egiten ahaleginduko dira inolako zalantza izpirik gabe. ■

